

ITZ-NEURTUZ

Begi-Beltzdun Elur-Lili

Otsalar

Bizi naizen txoko ontan
eguzkia oso urri.
Illunak aultasuna berakin dakarzkik,
eta, ene ametsa diat argi.

O !, egan uan odei bel-txuri,
Aunamendi'an barna,
naramak irekin.
Pirineo'an bai duk argia nai-aña.

Amiltegien gañetik,
elur-zuriz orniturik,
ba-duk aski gallurrik
elur-liliz (1) apaindurik.

Lañozko zaldi azkarrok
zuen gañean zamalkatuz,
egaztada arin baten,
Eolo'k puzka lagunduz.

.....

Odeiak naspil ortzian,
gallurrak erpin mendian,
kaden itunak baztertuz
zorioneko aurkitu nintzoan.

.....

Zertan ago elur-lili
emakumez jantzirik
goen gallurretako
lilia izanik ?

(1) Elur-lilli : *Edelweiss*, Flor de las nieves, (*Leontopodium*).

Ur-jausien zillar-apparren,
bisuts-lekurik soillenean
aintzira ixilkoien gañean,
aur-erregiña aiz pakean.

Baña, zertan abil gallur ortan
begi-beltzdun elur-lili ?
Esaidan. Nire billa ote abil
Edelweiss zoragarri ?

Ba-niñan uste ori, nunbait
zain ote intzanan
nire biotzarekin jabetzeko;
eta i, elur tartean.

Jainkoaren ondoan,
izarren gandik urbil,
orban gabe bizi nairik
gizonen gandik urrin.

Inguruan ire lagun
elurra t'aize otza;
etsairik gogorrena
erruki bageko ekaitza.

O !, begi-beltz elur-lili
ene biotzmiña diñat i-gan,
maite aunat, eta
laguntza nai al-dun ire nekeetan ?

.....

Pirineo'ko gallur artan
biotza idanan iltzatu...

Elur-lilizko andereñoa,
nik aña; nork maitatu ?

Ene biotz txokoan
nai diñat nik euki.
Ik jarri naun lilluraturik
begi-beltzdun elur-lili.